

Etika eta Gizabide Hezkuntza



Proiektua

i.by2


Egilea

Juanjo Leanizbeaskoa



Liburu honen salmentaren % 0,7 Chibuluma (Zambia), eskola bat eraikitzeko izango da. Eskola horren eraikuntza kudeaketaz SED (Solidaridad, Educación, Desarrollo) izena duen Gobernu Kanpoko Erakundea arduratzen da.

IBAIZABAL



Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2009-02-05).

Gerentea

Agustin M. Oiarzabal

Edizio zuzendaria

Sabin Gorrotxategi

Edizio koordinazioa

Eukene Herrera

Produkzio koordinazioa

Eukene Herrera, Nerea Uribe

Barruko diseinua

Nerea Uribe

Maketazioa

Nerea Uribe

Testua

Hitzurun

Azaleko argazkia

ISTOCKPHOTO.COM

Azaleko irudiaren diseinua

Alberto Robledo, Olatz Díaz de Lezana, Nerea Uribe

Inprimaketa

Cuatroas S. L.

Ibarsusi bidea, 1 -1. - 48004 Bilbao - 94 410 60 52

cuatroas@cuatroas.com

Etika eta Gizabide Hezkuntza Gida - 10587

ISBN: 978-84-8394-159-1 - Lege Gordailua: BI-0393-09

© Juanjo Leanizbeazkoa, 2009

© Ibaizabal argitaletxea, 2009

Argitalpen honen eskubide guztiak Ibaizabal Edelives S.A. argitaletxearen esku geratzen dira. *Copyrightaren* titularren idatzizko baimena lortu ezean, ezin da lan hau osorik edo zatika berregin, bidea edo prozedura edozein delarik ere (erreprografia eta tratamendu informatikoa barne), ezta aleak publikoki errentan utzi edota maileguan eman ere. Bestela, legeetan zehaztutako zigorrak ezarriko dira.

Debekatuta dago, legeak zehaztutako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein eratako berregitea, banaketa, komunikazio publikoa edota moldaketa, aurrez titularren baimena eskuratu gabe. Obra honen zatiren bat eskaneatu edo fotokopiatu behar baduzu, eskatu baimena CEDRO erakundeari (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Aurkibidea:

1	SARRERA	4
2	IBAIZABALEN PROIEKTUA ETIKA ETA GIZABIDE HEZKUNTZARAKO	4
	2.1. Ikasgaiaren xedea	5
3	IKASGAIAREN EKARPENA OINARRIZKO GAITASUNEN ESKURAPENARI	6
4	HELBURU OROKORRAK	7
5	EDUKIEN EGITURATZEA	8
6	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	10
7	HELBURUAK, EDUKIAK ETA EBALUAZIOA (unitateka)	13
8	OINARRIZKO GAITASUNAK	20
9	PROPOSATUTAKO ARIKETEN ERANTZUNAK	23
10	GAITASUNAK	39
11	PROBA OBJEKTIBOAK	41
12	PROBA OBJEKTIBOEN ERANTZUNAK	48

SARRERA

Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko curriculumean ikasgai berri gisa sartzen den **Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza** herritartasun demokratikoa sortzearen aldeko kezka sustatua da, hezkuntza-helburu eta -ekimenen artean. DBHri dagokiona EHAAn 2007ko azaroaren 13an argitaratutako dekretu batean azaltzen da. Bertan aipatzen dira ikasgai honen oinarriak: alde batetik, «XXI. menderako ikastea» programa, Jacques Delors jaunak koordinatutakoa, eta bestetik, Europar Batasunaren izenean Europako Batzordeak proposaturikoa, MECek Errege Dekretu batean argitara eman duena.

Gaitasun horiek, programaren arabera, etorkizuneko hezkuntzaren lau oinarri finkatzen dituzte: eza-gutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, izaten ikastea. EAEko curriculumak beste bat eransten die: “egiten eta eragiten ikastea” eta, beste helburuekin batera, hezkuntzaren ikuspegi zaharberitu eta gaurkotua eskaintzen du, herritartasunari eginiko zerbitzu gisa ulertu behar dena.

Dekretuak dio laugarren urteko “Etika eta Gizabide Hezkuntza”k “Herritartasunerako Hezkuntza”ren xede berberak dituela; beraz, ikasgai osagarriak dira, nahiz eta bakoitzak bere ezaugarri eta kutsu berezia izan, eta hainbat sakontasun-maila. Azkena judizio kritikoaren hezkuntzari lotutako herritarren balioen eraikuntzan oinarritzen da; lehena, berriz, judizio moralaren hezkuntzari lotutako balio moralen eraikuntzan. Zalantzarik gabe, oinarri komuna dute eta sarritan ezingo da judizio moralak eta judizio kritikoak bereiztea, izan ere batzuk besteetan oinarritzen dira. Nolanahi ere, “Etika eta Gizabide Hezkuntza” askatasunean eta erantzukizunean oinarritzen da, gizarte demokratikoen balioespe- nezko testuinguruan txertatua betiere, etikaren aldetik balioetsuak baitira bakea, berdintasun soziala eta genero berdintasuna, norbanakoen desberdintasunenganako errespetua, (direnak direla desberdintasunok), elkartasuna etab.

Giza Eskubideak ikuspegi etikotik eta moraletik aztertzeak ikaslea eramango du bizikidetzaren oinarri moralak ulertzera, eta etika komun bat eraikitzeke hainbat teoria etikotatik eskaintzen diren elementuak identifikatzera, bizikidetzaren oinarria identifikatzera, azken batean, egungo gizarte konplexu modernoetan. Horrek, orobat, demokraziaren zentzuan eta printzipioetan eta erakunde demokratikoen funtzionamenduan sakontzen laguntzen du.

Ikuspegi etiko berri horretatik egungo gizartearen arazo bereizgarri jakinen analisia egin daiteke, besteak beste, hainbat kolektiboren diskriminazio faktoreen azterketa, globalizazioaren analisia, baita herritartasun globalaren kontzeptuaren, giza garapen iraunkorraren edo lankidetzaren eta bake-kultura baten garapenaren azterketa ere.

Bereziki interesgarria da gizon eta emakumeen artean egon behar duen berdintasuna, emakumeek nozitzen duten diskriminazioaren kausak eta eragileak aztertzea, haiek balioestea pertsonaren duintasun printzipioetatik eta askatasunean egon behar duen berdintasunetik, kontuan hartuz gainera eskura dauden aukera bideragarriak diskriminazioa eta emakumeen aurkako indarkeria saihesteko.

IBAIZABAL PROIEKTUA ETIKA ETA GIZABIDE HEZKUNTZARAKO

Bigarren Hezkuntzako etapan, Etika eta Gizabide Hezkuntza DBHko 4. urtean ematen da, eta Herritartasunerako Hezkuntzaren helburu berberak ditu; beraz, gure proiektuak haren jarraipen hutsa izan nahi du.

Sarreraren esan dugun bezala, helburuaren oinarrian sistema demokratiko bati dagokion herritartasun eragile baten sustapena dago, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean aditzera eman zen moduan. Europar Batasunak eta nazioarteko hitzarmen eta akordioek ontzat eman eta indarrean jarri dituzte, eta EAEk bere egiten ditu.

Arlo honetan, Ibaizabal argitaletxeak **balioetan oinarritutako kalitatezko hezkuntzarekiko konpromisoa** dauka, eta bere baitatik abiatuta egiten du, gure kulturaren eta hizkuntzaren oinarrituta. Gure ustez, Euskal Herriak kontuan hartu beharreko ezaugarri bereizgarriak dauzka, eta horregatik saiatzen da bereizgarritasun horren zerbitzura jarriko dituen material kurrikularrak eskaintzen, hizkuntzarekin batera, errealitate soziokultural hori ere kontuan hartuta.

2.1. Ikasgaiaren xedea

“Herritartasunaren Hezkuntza”n bezala, gai guztietan komunak diren edukiak proposatzen dira, prozedura jakin batzuk eskuratu ahal izateko. Prozedura horiek ezinbestekoak dira oinarrizko derrigorrezko hezkuntzan eta hezkuntza etiko batean.

Laugarren urteko Etika eta Gizabide Hezkuntza **sei multzotan** antolatzen da, eta haietako lehenean aipatu diren eduki komunak txertatzen dira.

- **2. multzoa.** Identitatea eta bestetasuna. Heziketa afektibo-emozionala. Identitate pertsonalaren, askatasunaren eta erantzukizunaren balioetan oinarritzen da, eta arreta berezia eskaintzen dio adimenaren, sentimenduen eta emozioen arteko erlazioari.
- **3. multzoa.** Teoria etikoak. Giza Eskubideak. Multzo honetan sartzen dira gogoeta etikoko lerro handien analisia eta, bereziki, beren formulazioak adierazten dituen erreferente etiko unibertetsala.
- **4. multzoa.** Etika eta politika. Demokrazia. Balio konstituzionalak. Gure sistema politiko demokratikoko oinarri etiko eta juridikoak aztertzen ditu, eta unibertetsaltasun-maila batean proposatzen du azterketa. Aurreko ikasturteetako abstrakzio arrazionaletik haratago egiten du, hala egin baitaiteke ikasleek adin horretan heldutasun handiagoa dutelako.
- **5. multzoa.** Gaur egungo munduaren gizarte-arazoak. Egungo munduan sortzen diren arazo handien eta dilema moralen balioespen etikoa egiten du giza eskubideen ikuspuntutik: globalizazioa eta garapen-arazoak, gatazka armatuak eta nazioarteko komunitatearen jardura haiek konpontzeko, besteak beste. Hori guztia diskriminazioa baztertzeko ikuspuntutik eta bakea eta lankidetzaren sustatzen laguntzen duten mugimendu eta nazioarteko indarren balioespenetik.
- **6. multzoa.** Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna. Aurreko urteetan jadanik landutako edukien azterlanera itzultzen da. Aurtengo urtean berezko nortasuna duen alderdi bat txertatzea erabaki da, berdintasunari, askatasunari eta emakumeen diskriminazioari buruzko gogoeta sakon bat egin ahal izateko, baita aipatu diskriminazioarentzat egon litezkeen aukerak aztertzeko ere.

Orain arte esandakoak eskaintzen digu jadanik orientazio metodologikorik.

Gure ikasleen gizarteratzean esku hartu nahi badugu subjektu aktiboa izan dadin herritartasuna gauzatzeko, parte hartzea, erabakiak hartzea eta, ondorioz, erantzukizunak hartzea bultzatuko duten metodologiak erabili beharko ditugu. Hori guztia ez da diskurtsoekin ez modu mekanikoan ikasten, baizik eta behaketa, praktika, analisia eta eztabaida eginez, eta egunkari, telebista, aldizkari, Internet eta bestelako hedabideetan lortutako informazioari esker. Tutoretza eta bilerak ere une ordezkaezinak dira eskolan bizi diren gai interesdunak eta arazo moralak aztertzeko orduan; hori guztia, azken batean, parte hartzen, hitz egiten eta erabakiak hartzen ikasteko, eta gatazkak konpontzen ikasteko, antolatzeko eta bizitzeko eta eskolako lana antolatzen ikasteko. Zentzu horretan, erabilgarriak dirudite ikasleei beren aukera pertsonalak garatzeko aukera ematen dieten metodologia guztiak, kideekin elkarrekintzan betiere. Hala, “lan kooperatiboa” epigrafearen azpian dauden metodologia guztiak gailentzen dira, eta lankidetzaren bultzatzen duten beste tresna batzuk ere bai: proiektuak egindako lana, Web-Quest, bitakorak, talde elkarrengarileak, literatura solasaldiak, ikerkuntzak taldeak, etab.

Baina, gainera, ezinbestekoa da denok batera egindako jardura gogoeta pertsonalarekin eta ikuspegi trukeekin osatzea, solasaldi eta eztabaida arrazionaleri esker.

Ebaluazioak beharrezko mekanismoak erabili beharko ditu metodologia honen erabilerara eta azaldutakoa bezalakoa den ikaskuntza proposamen batera ohitzeko. Horretarako, orain arte ohikoenak izan diren moduez baliatuko da, baita lankidetzaren jardura neurtzen duten tresnez ere eta parte hartzeaz, inplikazioaz, gogoetaz eta elkarrizketaz. Osterantzean, “Herritartasunerako Hezkuntza”k eta “Etika eta Gizabide Hezkuntza”k ez lukete zentzurik eta irentsi ondoren ozen errepikatzen den doktrinazko katalogo bat izango liriteke besterik gabe. Beraz, ikasgai honetan ere ebaluazioak funtsezko eginkizuna du eta curriculumeko gainerako elementuetatik ezin bananduzkoa da.

IKASGAIAREN EKARPENA OINARRIZKO GAITASUNEN ESKURAPENARI

“Etika eta Gizabide Hezkuntza”k gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren eskurapena bultzatzen du lehentasunez.

- Bai “Herritartasunerako Hezkuntzak” bai “Hezkuntza etiko-zibikoak” garrantzi handia ematen diete pertsonen nortasunari eta bizikidetzaren positiboa eta autoestimua lantzeko beste pertsona batzuekin ezarritako harremanei. Hezkuntza horrek berdintasuneko genero-harremanen eta parte-hartzearen alde egiten du; aniztasuna baliotzat hartzen du, eta eskubideak eta betebeharrak eta Giza Eskubideak azpimarratzen ditu. Hala, gizarte- eta herritar-gaitasunarekin duen konpromisoa erakusten du. Gainera, lankidetzak gizabanakoak elkartzea ere errazten du; horrekin batera, gizarte-harremanak sortzen ditu eta gaitasun hori lortzeko laguntza indartzen.
- Era berean, lankidetzak ikasten ikasteko gaitasuna garatzen laguntzen dio ikasleari, honako hauekin batera egiten denean: zalantzetatik abiatutako gogoeta eta balioespen pertsonalarekin, gertaeren azterketa eta analisiarekin, rol-jokoekin eta argudiatze-arauei buruzko aukerekin. Horiek guztiak pentsamendua era sistematiko eta zorrotzean erabiltzeko prestatzen dituzte ikasleak, bai eta berrelikatze-eraketak egiteko eta beren eguneroko jardura beste dimentsio batzuetara estrapolatzeko ere; hala, norberak zer dakien jakingo du eta, horrekin, norberaren gaitasunaz ohartuko da.

Gainera, ariketa horietan trebatzeak ikaslearen ikaskuntza autoerregulatzeko gaitasuna indartzen du; izan ere, horrek ikaskuntza debateetako eta lankidetzako elkarrizketa bidezko alderatzean eraikitako irizpideekin lotzeko aukera ematen dio ikasleari. Hori curriculumeko edozein alorretarako ekarpen adierazgarria eta baliosua denez, ikuspuntu kognitibotik ere, irakasgai honek garrantzi handia hartzen du.

- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunari ere laguntzen dio, norberaren ekimena errazten baitu, bereziki, erabakiak eta erantzukizunak hartzeari dagokionez. Zalantza moralak, inguruko gertaerak eta beste aukera batzuk aurkezteak ongi eraturako judizio moral pertsonalak eraikitzen laguntzen du; hau da, norberaren autonomia eta ekimena bultzatzen ditu. Bizikidetzarako eta lankidetzarako erabilgarriak diren trebetasun sozialak dira, pertsona autonomo eta aktiboen arteko berdintasun-harremanak sustatzen baitituzte. Jarrera pertsonal bat hartzeko eta hori arrazoitzeko eskatzeak interpretazio eta gogoeta pertsonaletan oinarritutako judizio autonomo bat eraikitzen laguntzen du epe ertain eta luzera.
- Beste alde batetik, arrazoizko debateetan eta eztabaidetan parte hartzeak nahiz lankidetzak hizkuntza-komunikaziorako gaitasunari laguntzen diote, entzuten, azalpenak ematen eta argudiatzen trebatzea eskatzen baitute.

Sentimenduak, ideiak eta iritziak adierazteak ere, irakasgai hauetan ezinbestekoak baitira, gaitasun hori lortzen laguntzen du; izan ere, horretarako, hitzezko eta idatzizko hizkuntza erabili behar da, eta hainbat iturritatik eta, bereziki, publiketatik eta komunikabideetatik iritsitako mezu esplizituen eta inplizituen balioespen kritikoa egin behar da. Azkenik, gizartearen analisiari dagozkion termino eta kontzeptuak ezagutzeak eta erabiltzeak ere hiztegia aberasten laguntzen dute.

- Interneti esker lortzen ditugun tresna digitalak metodologia bati jarraituz erabiltzeak nabarmenki lagunduko du informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna garatzen. Jakintza-aren gizartearen eskakizunak kontuan hartuta, gaitasun hori lortzeko, ezinbestekoa da beste alor batzuekin lankidetzan aritzea; batez ere, gaitasun formal hutsa ez denean, hau da, erabileran trebatzea lortu nahi denean; aitzitik, tresna digitalen inguruko ikuskera berriak elkarreragina, parte-hartze irekia eta ezagutza-trukea ditu oinarri. Tresna horiei ahal den etekin handiena ateratzeko, lankidetzaren sare digital horizontalak eta debateak osagarri aproposak dira; horiek, jarraibide digitaletatik abiatuta, informazioaren trataera eraginkorra eta selektiboa egiten lagunduko dute.
- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunari egindako ekarpena bermatuta dago; izan ere, gizarteari eta naturari dagokienez, garapen iraunkorra aintzat hartzen da helburuetan eta ebaluazio-irizpideetan. Garapen iraunkorrak honako hau esan nahi du: ingurunera alde aurreko kontzeptualizazio batekin hurbiltzea, eta horrek ikasleari era autonomoan eta errespetuz jarduteko aukera eman behar dio. Herritartasunerako ezinbestekoak diren hainbat alor gehitzen ditu: osasuna, kontsumoa, ekoizpena, zientzia, teknologia, balio sozialak, etab.

«Herritartasunerako Hezkuntzak» eta «Etika eta Gizabide Hezkuntzak» gogoeta eta ekintzen arteko tentsioa dakarte, eta natura-ingurunearekin harremanak izateko beharrezkoa da hori; izan ere, harreman hori etengabe interpretatzen jarraitzeko laguntza ematen dute, gizabidezko balioetan oinarritutako esku-hartze batera egokitutako eremu batean koka dadin.

Beste alde batetik, informazioa paradigma zientifiko batetik interpretatzeak pentsamendu zientifikoa garatzen lagunduko du. Horri esker, pentsamendu hori erabiliko da arazo teknikoetarako irtenbide teknikoak proposatzean, eta, teknikoak ez diren arazoei konponbideak bilatzean, testuinguruaren azterketa zorrotza egingo da erabakiak hartu aurretik. Era berean, arrazoibidea eta iritzien elementuak azaltzeko analisi sistematikoak egiteak eta elementu horietatik abiatuta logika-legeen arabera osatze-lan sintetikoak egiteak ikasleei lagunduko die eguneroko bizitzako egoera konplexuei aurre egiten eta, oro har, arazoak konpontzen.

- Giza eta arte-kulturarako gaitasuna ere aintzat hartzen da. Garapen iraunkorra ikuspegi sozialetik ulertuta, sortze-lan kulturalak eta artistikoak gogoetarako eta ekintzarako objektu bihurtzen dira, eta ondare balioetsutzat hartzen dira. Era berean, kultura eta artea jarduteko eta hobetzeko eremu ezin hobea dira balioei eta pertsona arteko komunikaziorako trebetasunei buruzko hezkuntzarako; batez ere, beste herri batzuen kulturekiko eta adierazpen artistikoekiko jarreretarako.

Diziplinen arteko lanari esker, Herritartasunerako Hezkuntzak beste zenbait oinarrizko gaitasun lortzen laguntzen du, DBHren planteamendu integratzailearen barruan: besteak beste, derrigorrezko ikasketak burutzean, ikaslea bere nortasuna osatzea, herritar eragile izatea, helduen mundurako sarbide egokia egitea eta bizitzan zehar ikas-prozesuarekin aurrera segitzeko gauza izatea.

Oinarrizko zortzi gaitasun nabarmenduko ditugu:

- a) Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.
- b) Ikasten ikasteko gaitasuna.
- c) Matematikarako gaitasuna.
- d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- e) Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- f) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- g) Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.
- h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

4 HELBURU OROKORRAK

1. Banakoaren zein gizartearen dimentsioan giza izaera aintzat hartzea, eta norberaren nortasuna onartzea, bai eta gainerako pertsonena ere, hari dagokion dimentsio pribatua eta guzti, banakoen desberdintasunak eta pribatutasun-eremua errespetatzeko eta autoestimua hobetzeko.
2. Ikasleak euskalduntzat hartzea bere burua kultura askotariko gizarte-esparru batean, eta euskara eta literatura nahiz ikaslearen berezko eta erreferentziazko hizkuntzak eta kulturak balioestea; hala, hainbat identitate aintzat hartuta, nork bere identitatea eraikitzea modu inklusiboan, eta erreferentziazko esparru komun bat eraikitzea. Azken esparru horrek diferentziak errespetatzeko aukera eman behar du, eta kulturen arteko bizikidetzaren errazteko.
3. Sentimenduak eta emozioak adieraztea, eta kultura arteko eta gizarte-komunikaziorako trebetasunak garatzea, gatazkak lantzean elkarriketa eta bitartekotza erabiliz, taldeko jardueretan parte-hartze solidarioa errazteko.
4. Kidekoen arteko jardueretan parte hartzea, eta errespetuan, lankidetzan eta indarkeria baztertzean oinarritutako talde-proiektuak antolatzea bizikidetzaren eta parte-hartzearen sustatzeko.
5. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean jasotako eskubide eta betebeharrak ezagutzea, eta horiek Estatuko lege-testuetan nola agertzen diren jakitea (Konstituzioan, Autonomia Estatutuan). Eskubide horiek elkarren mende daudela eta zatiezinak eta unibertsalak direla jakitea eta onartzea, eta gertaerak eta gizarte-egoerak epaitzean horiek irizpide absolututzat hartzea, bai eta banakako jokoerak eta kolektiboak epaitzerakoan ere.

6. Egungo gizarteen aniztasuna, herrien eskubideak eta eskubide horien erabilpen askea aintzat hartzea eta horien berezko elementuak zein diren jakitea, aniztasunak bizikidetzara aberasten duela onartzeko.
7. Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna defendatzea, eta generoagatik, jatorriagatik, etniagatik, sinesmenengatik, norberaren eta gizarte-desberdintasunengatik, orientazio afektiboagatik edo sexualagatik edo beste edozein arrazoiengatik dauden bidegabekeria-egoerak eta bereizkeria baztertzea, giza eskubideetan oinarritutako bizikidetzara bidezkoa eta berdintasunezkoa lortzeko.
8. Emakumeen eskubideak onartzea, sexuen arteko diferentziak eta gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide-berdintasuna balioestea, gizonen eta emakumeen arteko bereizkeria dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak baztertzea, eta berdintasun-jarrera bultzatzea, norberaren garapen integrala bermatzeko, bai eta genero desberdintasuna eta emakumezkoen aurkako indarkeria desagerraraziko dituen bizikidetzara bermatzeko ere.
9. Demokrazia-sistemen eta maila guztietako erakunde politikoen egitura ezagutzea, Europa-koak barne, eta gertukoenetan (ikastetxean eta herrian) erantzukizuneko parte-hartzea sustatzeko, aukera posibleak eta hobekuntzak proposatzea.
10. Bizimodu demokratikoaren oinarriak errespetatzea, eta horretan parte hartzea ondare komunak irauteari eta hobetzeari eta animaliak errespetatzeari dagokienez herritarren eskubide eta betebeharrak betez, norberaren ikastetxeko eta ingurune hurbileko gizarte- eta natura-garapen iraunkorrari laguntzeko.
11. Bizitza politikoan eta sozialean parte hartzeak duen garrantzia balioestea, bai eta beste antolakuntza mota batzuetan ere, hala nola lankidetzan, asoziazionismoan eta borondatezko lanetan, eta horien eragin positiboak ezagutzea, gizarte-erantzukizunaren prozesuan parte-hartzea bultzatzeko.
12. Giza eskubideak zapaltzea, pobrezia eta desberdintasuna eragiten dituzten arrazoiak ezagutzea, bai eta horiek gatazka armatuekin duten erlazioa ere, eta bakea, askatasuna eta berdintasuna lortzeko asmoa duten ekintzak balioestea, parte-hartzea bultzatzeko mundu zuzen eta solidarioagoa lortzeko bitartekoa baita.
13. Herritartasun global bateko kide direla jakitea, eta norberarenak ez diren ohiturekiko eta bizi-moduekiko errespetu kritikoa izatea eta, ondorioz, egoera kaskarrean bizi diren pertsonekin eta kolektiboekin era solidarioan jokatzeko, bai ingurune hurbilean, bai eta maila globalean ere.
14. Pentsamendu kritikoa eskuratzea eta beste pertsona batzuek eta informazio-iturriek emandako arrazoiak balioestea —bereziki informazio-iturri digitalen emandakoak—, eta norberaren irizpideak eta elkarrizketarako eta arrazoibiderako trebetasunak garatzea, norberaren iritziak defendatzeko eta besteen iritziak horiei gehitzeko.
15. Teoria etiko nagusiak ezagutu eta aztertzea, eta egungo munduko gatazka sozial eta moral nagusiak zein diren jakitea, komunikabideen eta beste erakunde sozial batzuen bitartez zabal-tzen diren ereduakiko pentsamendu kritikoa sortzeko.

5

EDUKIEN EGITURATZEA

Curriculum ofizialean ikasgaien edukiak honako sei unitate hauetan egituratua agertzen dira:

1. multzoa. EDUKI KOMUNAK

- Elkarrizketa eta negoziazio bidez gatazkak konpontzea.
Bitartekaritza.
- Eztabaida prestatu eta egitea ingurune hurbileko edo izaera orokorreko arazoei buruz, gaurkotasuna duten gaiei buruz eta dilema etiko eta gizabidezkoen buruz, kontuan hartuz dauden posizioak eta aukerak.

- Analisi konparatiboa eta komunikabideek eta Internet sareak emandako informazioen ebaluazio kritikoa gaur egungo gertakarietara edo auzietara buruz.
- Injustiziak eta desberdintasunak ezagutzeko.
- Bizimodu justuagoak bilatu eta praktikan jartzeko interesa. Ikastetxearen barruan eta kanpoan elkartzeko bultzatzen duten proiektuetan parte hartzea.
- Kideen ikuspegiak sartzeko diskurtsoak egiteko orduan, eta haiekin polemika sortu edo osoki edo zati batean integratzea.
- Nork bere ikaskuntza erregulatzea autoebaluazio tekniken bitartez.

2. multzoa. IDENTITATEA ETA BESTETASUNA. HEZKUNTZA AFEKTIBO-EMOZIONALA

- Adimena, sentimenduak eta emozioak. Identitate pertsonala, askatasuna eta erantzukizuna. Errespetua desberdintasun pertsonalekiko.
 - Pertsona arteko erlazioak. Indarkeria baztertzeko pertsona arteko gatazken konponbide gisa.
 - Gaitasun eta jarrera sozialak bizikidetzarako.
- Norberarenak bezalakoak ez diren bizi moldeekiko eta pertsonen eskubideekiko errespetua.

3. multzoa. TEORIA ETIKOAK. GIZA ESKUBIDEAK

- Teoria etikoak.
- Giza eskubideak erreferentzia unibertsal modura giza jokabiderako. Eskubide politikoak eta gizabideak.
- Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak. Giza eskubideen bilakaera, interpretazioak eta babes eraginkorra.
- Desberdintasun sozial eta kulturalak. Diskriminazio, xenofobia eta bazterketa-jarreraren bazterketa.

4. multzoa. ETIKA ETA POLITIKA. DEMOKRAZIA. BALIO KONSTITUZIONALAK

- Demokrazia eta herritarren parte hartzea.
 - Institutuzio demokratikoak: oinarria eta funtzionamendua.
- Ordenamendu juridikoa bizikidetzara arautzeko tresna gisa.
- Balio konstituzionalak. Korrespondentzia eskubideen eta herritarren betebeharren artean.

5. Unitatea. ARAZO SOZIALAK EGUNGO MUNDUAN

- Hainbat kolektiboren diskriminazioa (etnikoak, sexu-orientazioak, pobreak, etab.).
- Balorazio etikoak giza eskubideetatik. Jarduera-proposamenak.
- Globalizazioa eta garapen-arazoak.
- Herritartasun globala. Lankidetzara. Giza eskubideen defentsan konprometitutako mugimenduak.
- Gatazka armatuak eta nazioarte-komunitatearen jarduera haiek konpontzeko. Terrorismoa.
- Jarduerak bakea ezarri, mantendu edo sendotzeko.
- Ingurumen-krisia: garapen iraunkorraren aldeko borroka.

6. unitatea. GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA

- Berdintasuna eta aniztasuna.
 - Emakumeen diskriminazioaren kausak eta alderdiak.
- Eskubidezko eta izatezko berdintasuna.
- Diskriminazioarekiko aukerak. Prebentzioa eta babes integrala emakumeen aurkako indarkerian.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Jokabideak eta hautuak arrazonatzea, modu egokian komunikatzea, errespetuz, eta elkarrizketa eta bitartekaritza praktikatzea gatazka-egoeretan.
 - 1.1. Bere jokabidea motibatzen duten arrazoiak zehazten ditu.
 - 1.2. Sentimenduak eta iritziak errespetuz komunikatzen ditu.
 - 1.3. Elkarrizketa eta bitartekaritza erabiltzen ditu gatazka-egoeretan.
2. Pertsonen dimentsio moralaren ezaugarriak diren oinarritzko bereizgarriak desberdintzea (arauak, balioen hierarkia, ohiturak, etab.) eta arazo moral nagusiak.
 - 2.1. Kontzeptu moralak definitzen ditu: araua, balioa, balioen hierarkia, ohitura, ongia.
 - 2.2. Egoera zehatzak arazo moral orokorrekin erlazionatzen ditu.
3. Teoria etiko nagusiak identifikatzea eta adieraztea.
 - 3.1. Teoria etiko nagusien printzipioak oro har deskribatzen ditu.
 - 3.2. Etikoki gatazkatsua den egoera bati hainbat erantzun ematen dizkio, hainbat teoria etikoren arabera.
4. Giza eskubideak aitortzea giza jokabidearen erreferentzia etiko nagusi gisa eta eskubide gizabidezko, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen bilakaera identifikatzea, eta jarrerak adieraztea haien modu aktiboan erabili eta bete daitezela.
 - 4.1. Banakoen eta taldeen jokabideak epaitzen ditu giza eskubideen arabera.
 - 4.2. Eskubide horien eboluzio historikoa deskribatzen du.
 - 4.3. Haien aldeko ekintzak proposatzen ditu.
5. Demokrazia informatzen duten balioak ezagutu eta sustatzea, eta sistema demokratikoaren egitura ezagutzea antolakuntza politiko modu gisa.
 - 5.1. Demokraziaren oinarritzko balioak adierazten ditu.
 - 5.2. Demokrazia ikasgelaren eta ikastetxearen antolakuntza eta funtzionamenduarekin erlazionatzen du.
 - 5.3. Bere eskubideak eta betebeharrak demokratikoak erabiltzen ditu parte hartzen duenean.
 - 5.4. «Sistema demokratikoa»ren ideia azaltzen du.
 - 5.5. Ingurune hurbileko bizitza demokratikoa hobetzen laguntzen duten jardueretan parte hartzen du.
6. Gaur egungo munduko arazo sozial nagusiak eragiten dituzten kausak ezagutzea (pobrezia, herrialde aberats eta txiroen arteko harremanak, gerrak, demografia, narriadura ekologikoa, espezieen desagertzea, etab.), komunikabideek ematen duten informazioa modu kritikoan erabiliz, eta bizi molde justuenen defentsarekin konprometitutako konponbideak identifikatzea.
 - 6.1. Munduko arazo sozialak beren kausekin erlazionatzen ditu.
 - 6.2. Hainbat iturritako informazioa erabiltzen du.
 - 6.3. Arazo sozialen kausak informazio horretan oinarrituta argudiatzen ditu.
 - 6.4. Garapen iraunkorraren ideia arazo sozial horien konponbidearekin erlazionatzen du.
 - 6.5. Arazo horiek arintzen eta deuseztatzen laguntzen duten jarduerak proposatzen ditu.
7. Berdintasunaren eta aniztasunaren arteko erlazioa ezagutzea eta diskriminazio-kausak eta -faktoreak identifikatzea.
 - 7.1. Berdintasunaren eta aniztasunaren arteko bateragarritasuna argudiatzen du.
 - 7.2. Diskriminazio-egoerak identifikatzen ditu eguneroko bizitzako ohikoenen artean.
 - 7.3. Diskriminazioa kausaren batekin erlazionatzen du (jatorria, etnia, afektibo-sexuala, etab.).
 - 7.4. Egoera horiek berariaz baztertzen ditu.

8. Emakumeen eskubideak eta haiek gizonezkoen eskubideekin parekatu behar direla defenditzea eguneroko errealitatean (etxean, lanean, kultura arloan, etab.). Emakumeak gutxiesten eta diskriminatzen dituzten adierazpenak baztertzea eta jarrera aktiboa adieraztea genero-indarkeriaren aurka.
 - 8.1. Emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasunaren aldeko jarrera argiak adierazten ditu.
 - 8.2. Emakumeak gutxiesten eta diskriminatzea bultzatzen duten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak baztertzen ditu.
 - 8.3. Berariaz baztertzen du emakumeak biktimak diren indarkeriazko egoerak.
 - 8.4. Kultur elementuen (estereotipoak, rolak, etab.) eta emakumeen diskriminazioaren arteko erlazioa azaltzen du.
 - 8.5. Diskriminazioaren eta genero-indarkeriaren aurkako jarduerak proposatzen ditu.
9. Hainbat informazio-iturri erabiltzea eta haiek baliatzea bere planteamenduak defenditzeko eta ikas-kideen aukerak eta posizioak kontuan hartzeko, tokiko edo izaera globala duten arazoei eta egoerei buruz sortzen diren eztabaidetan.
 - 9.1. Hainbat iturritako informazioa eskuratzen du, Internet sarea barne.
 - 9.2. Lortutako informazioa irakasleak eskainitako irizpideen arabera iragazten du.
 - 9.3. Informazio hori eta beste iritzi eta argudio batzuk erabiltzen ditu bere gogoetetan eta ikuspegietan txertatzeko.
 - 9.4. Eztabaidetan parte hartzen du gutxieneko zorrozatasuna duten argudioekin.